# Ezagutza soziolinguistikoak hiztun aktiboak eta kulturzaleak sortzeko bidean: tokikotasuna ardatz

## Soziolinguistika eskolan: gaztetxoen hizkuntza ohituren mudantzarako gako



Aitor Errazkin Vicente
Letizia Garcia Fernandez

Ilustratzailea: Helena Azkarragaurizar

# AURKEZPENAREN NONDIK NORAKOAK

1. Enrike Lekuona Beka eta aurkeztutako proiektua
2. Testuinguruaren azalpena
3. Ikerketaren hautu metodologikoa
4. Esku-hartzeak
5. Prozesuaren osteko sentsazioak eta zenbait gogoeta



Ilustrazailea: Leire Salaberria

1. Enrike Lekuona Beka eta aurkeztutako proiektua:

## Soziolinguistika eskolan: gaztetxoen hizkuntza ohituren mudantzarako gako

Hizkuntza gutxituaren hiztunak bere errealitatearen berri izan behar du



Soziolinguistika kontzientzia garatzeko tresna



Ilustratzailea: Helena Azkarragaurizar

# 2. Testuinguruaren azalpena

KRISTAU ESKOLA

Ama Guadalupekoa Ikastetxea






Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2023

Irudiaren iturria: KM Kulturunea. Ciudad de Fuenterrabia : Programa de fiestas euskaras y locales, 1925

3. Ikerketaren hautu metodologikoa

## METODO MISTOA

| 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|
| **GALDETEGIA** | **ESKU-HARTZEAK** | **GALDETEGIA** | **EZTABAIDA SAIOAK** |
| KUAN + KUAL | 3 ESKU-HARTZE<br>Ko-irakaskuntzan<br>3 orduko 3 saio | KUAN + KUAL | KUAL |

# 4. Esku-hartzeak:

## LEHEN ESKU-HARTZEA

Saio honen helburua izan da **hizkuntzen inguruan lehen gogoeta** egitea eta esanahiaz hausnartzea. ***Zer dira hizkuntzak?*** izenburupean ikasleek hainbat gai landu dituzte:

- **Zenbat hizkuntza daude munduan?**
- **Zergatik galtzen dira hizkuntzak?**
- **Hizkuntza, herria eta kultura**
- **Hizkuntzak berdinak zein desberdinak dira**
- **Elebakartasuna eta eleaniztasuna**
- **Non eta zertarako erabiltzen ditugu hizkuntzak?**
- **Euskararen jatorria**

Ikasleek laukoteka lan egin dute eta laukote bakoitzak goian aipatutako gai bat izan du langai.



Ilustratzailea: Elena Odriozola

Chrome Archivo Editar Ver Historial Marcadores Perfiles Pestaña Ventana Ayuda    Lun 10 jul 11:46

Soziolinguistika eskolan - AM

sites.google.com/d/1reBEQ1sHa1uOLe31NmanpoynU1C8eB3F/p/16vbxVtM10TUcymG38We4WW0toroJnORJ/edit?pli=1

Soziolinguistika eskolan - AMA GUADALUPE...

Orri nagusia   Lehen esku-hartzea   Bigarren esku-hartzea   Hirugarren esku-hartzea

# ZER DIRA HIZKUNTZAK?



## MUNDUKO MAPA

1 taldea   2 taldea   3 taldea   4 taldea   5 taldea   6 taldea

7 taldea

# TALDE 4: HIZKUNTZAK BERDINAK BEZAIN DESBERDINAK DIRA



HIZKUNTZAK BERDINAK DIRA



HIZKUNTZAK EZBERDINAK DIRA



EUSKARAZ EGIN EZIN DAITEKEENIK EZ DAGO



## PITTIN BAT GEHIAGO JAKIN NAHI DUZUE?

Miguel Unamuno Bilbon jaio zen 1864an, eta Salamancan hil, 1936 urtean. Salamancako Unibertsitateko errektore izendatu zuten urte berean, honako hitzak esan zituen euskarari buruz, bere jaioterrian ospatu ziren Lore Jokoetan (garaian euskara indartzeko egin ohi ziren jaialdiak ziren Lore Jokoak):

> ***« El vascuence no puede acomodarse a la vida moderna [...]. Bilbao hablando vascuence es un contrasentido. [...] El vascuence se extingue [...]. Enterrémosle santamente. »***
>
> —Miguel Unamuno

Iturria: https://eu.wikipedia.org/wiki/Miguel_Unamuno

# TALDE 5: ELEBAKARTASUNA VS. ELEANIZTASUNA



Elebakartasunetik eleaniztasunera



Hizkuntzak kolore



Aniztasuna babestu beharra



Hizkuntzak hil egingo dira




## PITTIN BAT SAKONDU NAHI?

Luanko Gonzalo rap abeslariaren bideo-klip bat azaltzen da ondoko dokumental honetan. Zehazki, 16'04'' eta 18'12'' minutuen artean. Egilearen azalpenak ere entzuten dira. Aztertzera gonbidatzen zaituztegu. Zer iradokitzen dizuete irudiek? Zein hizkuntza entzuten dira abestian zehar? Zein da mezua?

Ezagutzen duzue antzeko kasurik Euskal Herrian?

# NONDIK HONDARRIBIA IZENA?



## KOLDO MITXELENA HIZKUNTZALARIAREN ESANETAN...

Hondarribia zatekeen herriaren jatorrizko izena, eta "hondar" eta "ibi" hitzak bereizten ahal dira bertan. Mitxelenaren esanetan izenaren lehendabiziko zatia oso arrunta da inguruan: ondarreta, ondarru... Eta halako toki izenetan. Izenaren lehendabiziko zati horren esanahiari dagokionez, guztioi burura letorkiguken hura da: hondarra bera.

Izenaren bigarren zatia ere, "ibi" delakoa, ohikoa da euskal izendegian, "Zaldibia" izenean esaterako, baina eskualdean bertan badira adibide gehiago: Behobia, Urdanibia... "Ibi"-ak bidea edo muga esan nahi omen du. Beraz, Hondarreko bide, muga edo tokia litzateke Hondarribia. Inguruari begiratzen badiogu, badu zentzua. Euskal izenaren zantzurik zaharrena XII. mendekoa omen, Nafarroako erreinuaren parte zen orduan.

Iturria: https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/69502.pdf

# 4. Esku-hartzeak:

## BIGARREN ESKU-HARTZEA

Saio honen helburua izan da **Euskal Herriko egoerari begira jartzea, hizkuntzaren alderdi sozialari erraparatuz.** Horretarako, soziolingustikan ardatz diren kontzeptuak ezagutarazi dizkiegu eta horien inguruko gogoeta egin dugu.  Aztertu ditugun gaiak honakoak izan dira:

- **Hiztun komunitatea eta gune sinbolikoa**
- **Elebitasun indibiduala vs elebitasun soziala**
- **Diglosia**
- **Hizkuntza gutxitua eta hizkuntza inperialismoa**
- **Hizkuntza estresa**
- **Autogorrotoa eta hizkuntza alienazioa**
- **Hizkuntza aurreiritzia eta hizkuntza ideologia**


Ilustratzailea: Leire Salaberria

# ORDUAN, ZERGATIK DAUDE HIZKUNTZEN ARTEKO DESOREKAK?

Hori da gaurko saioan ikasiko duguna. Eta horretarako, **EUSKARAK** azken mendean, gutxi gorabehera, izan duen bilakaerari erreparatuko diogu.



# HAUSTURA TENTSIOA



## HAUSTURA TENTSIOA

Galeraren eraginez, egoera jasangaitza izatera iristen denerako hiztunak fede gutxi izan dezake bere hizkuntzan eta hizkuntz komunitatean. Horrek amore ematera eta bere hizkuntza erabat baztertzera bultza ditzake hiztunak.

Baina inflexio puntua izan ohi da une hori, kontrako jarrera ere eragin baitezake. Alegia, joera hori hautsi eta bere hizkuntza berreskuratze bidean jartzera bultzatu ditzake hiztunak.

Erabakia ordura arteko jarrera baztertu eta hizkuntza berreskuratzearen aldekoa denean haustura tentsioa gertatzen da. Puntu horretara iristean hizkuntza berreskuratze bidean jartzeko urratsak ematen hasten da hizkuntz komunitate hori.

IKAS-IKUS DEZAGUN EUSKAL HERRIAN GERTATUTAKO HIZKUNTZAREN BERRESKURATZE PROZESUA

# TALDEA 5




## HIZKUNTZA-ESTRESA

Hizkuntza estresa edo estres linguistikoa esaten zaio, soziolinguistika alorrean, hizkuntza edo dialekto gutxiagotu bat erabili nahi duten hiztun elebidunek jasan ohi duten tentsioari.[1]

Hizkuntza gutxiagotua edo dialekto gutxiagotua erabili nahi duen hiztun elebidunak, zenbait egoeratan, estres moduko bat sentitu ohi du. Pertsona elebidunak pertsona ezezagun baten edo ezezagun batzuen aurrean, zenbait egoeratan, hizkuntza gutxiagotua eta hizkuntza zabalduenaren artean hautatu beharko du. Hizkuntza gutxiagotua hobesteak dakarren tentsioari esaten zaio hizkuntza estresa.

Iturria: https://eu.wikipedia.org/wiki/Hizkuntza_estres

EZAGUTZEN DUZUE HALAKORIK SENTITU DUEN INOR?

ETA ZUEK, SENTITU DUZUE INOIZ HALAKORIK?

## KAI NAKAI

Tira



## 5. Prozesuaren osteko sentsazioak eta zenbait gogoeta

- Ikasleek ederki hartu gaituzte: soziolinguistikak euskaraz egiteko zergatik esaten zaien ulertzen lagundu die
- Ikasleak lotu egin zaizkio guk proposatutakoari: eduki soziolinguistikoak elkarrekin lantzea, baina lan-giroa bereziki zainduta:
    - Ko-irakaskuntza
    - Aurreiritzirik eza eta pentsamendu kritikoa
    - Ikasle-irakasle artean elkarrekintzan oinarritutako hartu-emana
    - Materialaren barnebiltze berariazkoa (tokikotasuna)
    - Idatzia bai, baina ez soilik: multimodalitatea



Ilustratzailea: Maite Mutuberria

- Hizkuntza Tutoretzaren esperientziatik jauzia. Beldurrak motibazio. Beldurra / kezka:
  1.- 13-15 urte bitarteko ikasleen harrera
  2.- Irakasleen formakuntzatik ikasleen formakuntzara
- Hazia ereiten utzi digute, baina ernaltzen ez dugu ikusi.
- Gelaratzea ez da lantzea
- Eduki soziolinguistikoen irakaskuntzari heldu behar dio eskolak; baina irakasleak janzteko beharra
- Eskolari euskalduntzeko ardura egotzi zaio;  erdalduntzeko bidea ere bada
- Hizkuntzen arteko botere-harremanen inguruan hitz egin behar dugu eskolan



Ilustratzailea: Mariñe Arbeo

Ilustratzailea: Mariñe Arbeo



ESKERRIK ASKO

*aitorerrazkin77@gmail.com*

*lgarcia@mondragon.edu*